

Fundación **BBVA**

VIII.
Musika Garaikideko
Kontzertu Zikloa
Bilbao
2017-2018

Cuarteto Tana

Fundación BBVA
San Nikolas Eraikina
Bilbao

2018
URT
09



BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak —ezagutza zientifikoa eta kultur sormena bultzatzea bereizgarri duenak— Musika-programa bat eratu du arte-adierazpen horri onura ateratzeko eta hartaz gozatze-ko gizarteak dituen era ezberdinetan barrena egindako ibilbide oso bat izango balitz bezala. Horrela, obra berriak sortzea sustatzen du konposizio-enkarguak eginez, eta haiek zaindu eta zabaltzeki bide ematen dio lehen mailako diskoetxe eta interpreteekin elkarlanean egindako grabazioen bitartez. Zuzeneko musikaz gozatzea sustatzen du urteko kontzertu-zikloen bitartez, zeinei esker herritarrek doan entzuten baitituzte erreperitorio garai-kidean erreferentzia diren ensemble eta solistak. Konferentzia-zikloak antolatzen eta argitalpenak editatzen ditu egile jakin batzuen lana hobeto ulertzeko edota konposizio-aldi jakin batzuen azterketari ekiteko. Musikari gazteei prestatzeko aukera ematen die

honako hauekin garatutako programen bitartez: Orquesta y Coro de la Comunidad de Madrid, Joven Orquesta Nacional de España eta Escuela Superior de Música Reina Sofía. Eta ikerketa- eta sorkuntza-proiektu oso berritzaileak gauzatzen ditu Musika eta Operako Leonardo Beken bitartez.

Orkestren kudeaketari buruzko sinposio espezializatuak antolatzen ditu, elkarlanean jarduten du herrialdeko hainbat musika-talde eta antzokirekin (Teatro Real, Teatro de la Maestranza, Gran Teatro del Liceu, Orquesta Sinfónica de Madrid eta Operaren Lagunen Bilboko Elkarteak, besteak beste), eta bikaintasuna aitortzen du honako sari hauen bidez: Premio de Composición Asociación Española de Orquestas Sinfónicas-Fundación BBVA eta BBVA Fundazioa Fronteras del Conocimiento Saria Musika Garaikidean.

Interpreteak

Cuarteto Tana

Antoine Maisonhaute, biolina
Ivan Lebrun, biolina
Maxime Desert, biola
Jeanne Maisonhaute, biolontxelo

Egitaraua

LEHEN ZATIA

Sofía Martínez (1965)
Siempre, todavía

Voro García (1970)
*Slapsticks**

Franck Bedrossian (1971)
Tracés d'ombres

BIGARREN ZATIA

György Ligeti (1923-2006)
Cuarteto de cuerda n.º 1,
Métamorphoses nocturnes

Yann Robin (1974)
Cuarteto de cuerda n.º 2,
Crescent Scratches

* Erabateko estreinaldia

Zikloaren koordinazioa

Gabriel Erkoreka

Gaur Cuarteto Tanak eskainiko duen kontzertuari prelude modura hasiera emango dion piezak ez du zerikusirik ondorengo entzungo ditugun piezekin. Egitarauan behin eta berriz ikusiko dugu gehiegizkoa, saturatua, baina Sofía Martínez gasteiztarraren proposamenak guztiz kontrakoa den espiritu batean du sorburua: *Siempre, todavía* hari-laukotea, 2009an konposatua, soiltasun ia gorri batez ezagutarazten da. Haren sonoritateak, isiltasunaren intimitatean kokatuak, soinuei irregulartasunak eta lohitasunak ematen dizkieten tekniken bitartez sortzen dira, eta edonoiz hauts litekeela dirudien bilakaera hauskor batean murgilarazten gaituzte. Lehen mugimendua-ren amaiera ederrak, akorde estatiko baten gainean, aura poetiko bat ematen dio osotasunari, zeinak, jarraian, umorezko kutsuak hartuko baititu bigarren zati laburreko *pizzicatiei* esker.

«Elkarren artean oso bestelakoak diren bi mugimenduz osatzen da laukotea. Lehena, motela eta jarraitua; bigarrena, azkarragoa eta etenagoa», azaldu du Martínezek. «Lana konposatzeko, Guacimara Alonso biolinistarekin landu nituen tinbreak. Lehen mugimendua-ren hasierak giza arnasa antzeratzen du. Pieza leun hasten da, baina gero handituz eta hedatuz doa, iratzartze baten modura, mundua deskubritzen duen izaki baten modura. Bigarren mugimendua ludikoagoa da: haurtza-

roko mundua, bere ustekabe eta kontrasteekin». *Siempre, todavía* Cuarteto Vertavorako enkargu bat izan zen, eta Madrilgo Auditorio Nacional de Músican Liceo de Cámarako kontzertuzikloan estreinatu zen.

Gau honetako bigarren lana erabateko estreinaldia da, Voro Garcíaen *Slapsticks* laukotearena, hain zuzen ere. Konpositore, irakasle, zuzendari eta programatzaile gisa, García Valentziako musikari aktiboenetako bat da. Conservatorio Superior de Música Joaquín Rodrigon egin zituen Konposizio-ikasketak, eta Mauricio Soteloarekin batera trebatu zen geroago. Orkestra eta talde espezializatuetako zuzendari gisa, Ensemble Espai Sonor taldearekin eginiko lana nabarmentzen da, eta, programatzaile gisa, Suecako Mostra Sonoran eta Valentziako Festival Internacional de Música Contemporáneau egindakoa; Ensembles izenarekin ezaguna den azken horretan urritik aurrera da zuzendari.

Colectivo Tanaren ibilbidea, musika saturatutik hain hurbila, aintzat hartuta, García keinuaren eta gehiegikeriaren inguruko ariketa bihurtu nahi izan du *Slapsticks* lana. Izenburuak *zartailu* musika-tresnari egiten dio erreferentzia; zurezko bi xafraz osatuta dago eta, elkar jotzean, zartailuarenaren antzeko soinua egiten du. Tresnaren jatorri etimologikoa ingelesezko *slap* (kolpea edo zaplaztekoa) eta *stick*

(makila) hitzetan dago, eta XVI. mendeko antzezlanetan kolpe baten soinua imitatzeko erabili zuten lehen soinu-efektuetako bat izan zen.

Haren sorrerari dagokionez, Garcíak honelako azalpena eman du: «XIX. mendean, *slapstick* umorea, zeinaren ezaugarria indarkeria fisikoko neurritz gaineko ekintzak aurkeztea den, ohikoa bilakatu zen herri-antzezpenetan. Eta XX. mendeko lehen hamarkadetan, zinema mutuaren urteetan, *slapstick* zinemak goraldia zuen, Charlie Chaplin, Buster Keaton edo Harold Lloyd artista bikainen eskutik, besteak beste. Egoeren inprobisazioak ekarritako berezkotasunak zein pantomimak keinuaren gehiegikeria hartzen dute adierazpide nagusi. Piezaren dramaturgia soinuduna prestatzeko, berriz, era horretako neurritz gaineko keinu-ekintzak hartu dira abiapuntu. Ekintza kementsuak, kontraste handiekin txandakaturik, soinu-parametroen denborazko dinamikarekin eta antolamenduarekin batera, diskurtso soinudun baten funtsezko sortzaile modura, non era askotariko *pizzicatiak* eta *col legno battutoak*, *glissandoaren* tratamenduarekin batera, izango diren eragile nagusiak».

Franck Bedrossian da, Yann Robinekin batera, Frantziako *musique saturée* deritzonaren adierazle nagusia, XXI. mendean sortutako musika-joera inte-

resgarrienetako batena, alegia. Gaur gauean Cuarteto Tanak eskainiko duen egitarauaren amaierako zatiaren ardazta dira bi autore horiek. Taldeak, bestalde, sorreratik oso lotura hertsia izan du estetika horrekin, zeinak, birtuosismo tekniko handia ez ezik, interpretazioetan arrisku handiena hartzea ere eskatzen duen. Intentsitate izugarria du.

Saturazioaren konpositoreek osagai politiko handia dute beren pentsamenduaren oinarrian, baita bizi garen munduaren konplexutasunaren gaineko kontzientzia zolia ere. Hala, bada, kaosera zein gehiegikeriara itzultzearen alde egiten dute, abangoardiako musikek formaren eta soinu-materialen gainean ezartzen duten kontrol irmoari kontrajarrita. Raphaël Cendok, hau da, Bedrossian eta Robinekin batera saturazioarekin lotura handien duen beste konpositoreak, indar handiko manifestua idatzi zuen 2011n, *Por una música saturada* izenburupean. Mugimenduen printzipio filosofikoak, estetikoak eta estilistikoak azaldu zituen bertan; hona hemen atal batzuk:

«Kontrolak zolitasun handia ekarri du lanen idazketa eta interpretaziora, zehaztasun hobeezin baten mundua proiektatu du, non entzumena gertatzen zen orori erne egon zitekeen, asaldatuko zuen inolako neurrigabekeriarik gabe, non sistema oro azaldu eta aztertu ahal zen. [...] “Zentzumen

guztiak normalizatzeko” nahi bizi hori, kontrolaren pentsamenduaren berezko eslogana dena, zaharkitua gelditzen da ezezaguna atzeman nahi dugunean, plangintzaren eta estandarizazioaren ahultasuna azaleratzen baita orduan: haren mugak ez datoz bat jada bizirik irauteko dugun nahiarekin. [...] Musika saturatu baten antolamenduak desorientazioarekin du zerikusi handiagoa, plangintzarekin baino: kontua jada ez da aurreikustea, norberaren burua galtzea baizik; kontua ez da antolatzea, mundu ezegonkor, basati eta ezezagun bateranzko bide bat taxutzea baizik, bai idazten duenarentzat bai interpretatzen edo jasotzen duenarentzat. Idazketaren premia da sortzeko prozesuaren gakoa. Premia eta erreakzioa».

Ezaugarri horiek eta jarrera hori hautematen dira *Tracés d'ombres* lanean (Itzalen aztarnak). Ensemble Alternance taldeak estreinatu zuen haren lehen bertsioa, 2005ean, eta Cuarteto Diotimak behin betiko bertsioa, 2007an. Hamar minutu eskaseta, Bedrossian konpositorearen lehen eta arras kontzentratutako hari-laukote honek denborazkotasun azeleratu eta luzatuko hiru aldi kontrastatzaile zaharkatzen ditu, non, autorearen iritzi, «hainbat fenomeno saturatu» gartzten diren, «keinu instrumentalaren bidez iragazi eta puntuatzen direnak». Pixkanaka-pixkanaka, piezaren bilakabi-

dean, Bedrossianek «gehiegikeriaren artikulaziotzat» jotzen duena sortzen da, zeinaren ihes-puntua bigarren mugimenduaren amaiera izan litekeen. Hala, forma globala testura eta figura soinu-dunen aurkakotasunen eta eraldaketen bidez eratzen da, dialektika bat ezartzea helburu, non tinbreak, «mantso edo ziztu bizian izurduraren eta gartentasunaren artean ibilita, giza ahots baten harat-honatak eta isiltasunerako haren obsesioa gogora dakartzan».

Bedrossian eta Robinen sorkarien soinu-unibertsoari a priori guztiz arrotz zaiela dirudien pieza bat dugu esku artean orain. Hala eta guztiz ere, Ligeti saturazioaren urruneko aurrekaritzat har liteke; izan ere, 1956an Vienara iritsi ondoren, eta Koloniako WDRen Estudioan Stockhausen konpositorearekin batera eginiko musika elektronikoko esperimentuak oinarri hartuta, Ligeti modu ezohikoan dentsuak ziren soinu-konbinazioen aberastasun tinbrikoa esplota-zen zuen idazkera instrumental batera desbideratu zen. Aberastasun horren berri jaso ahal izan zuen Kolonian eskura izan zituen bitarteko elektronikoei esker. Era berean, informatika eta soinua manipulatzeko tresna modernoak (Djek erabiltzen dituztenak, kasu) ezinbestekoak izan dira konpositore saturatuen pentsamenduaren alderdiak moldatzeko. Ligetirentzat, hura deskubritzeak, ordea, ez zuen tradizioarekin haustea ekarri, baizik eta deribazio bat izan zen:

dentsoago egiteko prozesuan jarri zuen horrenbeste miresten zuen Ockeghem polifonia berez dentsoa, eta, horren birtartez, mikropolifonia bilakatzea lortu zuen, non polifoniak, sare iragazgaitza baten modura, eraikuntza-intelektual izateari utzi eta ehundura, izurdura eta kolore bilakatzen den.

Cuarteto de cuerda n.º 1, Metamorfosis nocturnas azpi-izenburua duena, Ligeti Vienara iritsi baino lehenagokoa da eta, ondorioz, oso bestelako mundu kontzeptualaren zati; hala ere, haren kontraste zakarretan zein eduki korapilatsuan saturazioaren autoreekin zenbait parekotasun aurki daitezke. Ligetik berak onartu zuenez, 1953-54ko laukote honetan erreferentia «Bartók da oraindik», Stravinskyren hainbat eragin erakusten bazituen ere. Ligetik, idatzi zuenean, ez zuen itxaropen handirik 1950eko Hungariako arte-giro itogarri hartan interpretatu ahal izango zuenik, baina 1958tik —orduan estreinatu zen— laukoterako errepertorioaren funtsezko lana bilakatu da, Ligetiren beraren *Cuarteto para cuerda n.º 2* apartaren ordain gazte eta atseginen. Konpositoreak azaldu zuenez, azpi-izenburua —*Metamorfosis nocturnas*— formari dagokio: «Bariazio-forma mota bat da, baina kontua da ez dagoela era askotako gai espezifikoko bat. Baizik eta musika-kontzeptu bera etengabe forma berrietan agertzen da; horregatik, “metamorfosisa”

egokiagoa da “bariazioak” baino». Esan daiteke laukoteak mugimendu bakar bat duela edo mugimendu labur askoren segida bat duela, eta batzuk besteekin batu egiten direla elkarri era zakar batez etenez. Batzen dituen materiala, bitarteetan etengabeko eraldatze-egoera batean beti agertzen dena, bi bidun maior dira, tonuerdiko bitartearekin ondoz ondo sartzen direnak. Emaizta, Ligetiren iritziz, «tonala ez den baina erabat atonala ere ez den» musika bat da.

Cuarteto Tanak Yann Robinen musika-ekin emango dio amaiera emanaldia-ri. Soinuaren eta zarataren arteko mugan sortutako musika saturatu horien adibide konplexuenetako bat da; musika izugarri dentsoak dira, musikarien interpretazio-aukerak zein entzuleen hautemate-ahalmenak mugara eramaten dituztenak. Robinen bigarren hari-laukotea, *Crescent Scratches*, lehenaren —*Scratches*— zuzeneko jarraipena da. Konpositore frantsesak *hip-hop*eko musikarien eta *DJ*en artean oso ohikoa den teknika berrinterpretatu zuen lan horretan, *scratching* deritzona, hau da, abian den diskojogailu baten gainean binilozko disko bat mugitzea. Mugimendu horrek hots urratu bereizgarri bat eragiten du, eta aldatu egiten du biniloak abestiaren *beat* edo oinarri erritmikoarekin duen sinkronizazioa. 2009ko lehen gerturatzeko hartan, Bredrossianek denbora

errealean elektronika erabiltzen zuen, laukotean soinu-irudi gainjarri baten bidez «eskizofrenia» bat sortzeko, zeinak instrumentu-multzoarena berarena lekualdatzen edo bere baitara leherrarazten zuen.

Bigarren hari-laukotean, 2011n estreinatua, Bedrossianek elektronika alde batera utzi zuen, baina ez, ordea, lehenean ikasi zituen kontzeptuak. Hala, *Crescent Scratches* bi ideia nagusi oinarri hartuta sortu da: batetik, Robinek «*glissando* saturatua» deitzen duena, plater birakarian diskoaren joan-etorriko ibilbi-deak eragindako scratcharekin aldera daitekeena, eta, bestetik, *loop* edo begiztaren nozioa, hau da, sekuentzia bera, aldatua edo ez, behin eta berriz erreproduzitzea. Lana konposatzeko prozesuaren barruan Bedrossianek begiztak diseinatu zituen, eta esperimentuak egin zituen haien erreprodukzio-abiadurarekin, geruzetan gainjartzearekin eta tinbrearen araberako tratamenduekin. «Horren ondorioz begizten itzulera ia ikusezina da azkenean, eta fenomeno hori bereziki interesatu zitzaidan konposizio honetan», baieztatu du Bedrossianek. «Begizta, era horretan, mikroelementu bilakatzen da, makroegitura baten jarduera biziaren eragile; eta makroegitura hori bera gertakariz guztiz saturaturik dagoen masa baten modura hautematen da».

Mikel Chamizo

Cuarteto Tana



Cuarteto Tanaren bereizgarria ez dago aurrez kalkulaturik, ez aurrez pentsaturik ere; taldearen bereizgarria erreperitorioan datza: erreperitorio, ez bairik gabe, orijinala eta zinez garaikidea. Ahots bakarra balira bezala, musikariek laukotearen tradizioari lotutako lau gogo eta lau energia agertzen dituzte, baina, halaber, konbentzimendu osoz, bilaketa horren irismena zabaldu nahi dute, sorkuntza garaikidea adierazpen pertsonal bilakatu nahian. Haien jakin-min musikal asegaitza dela eta, bizirik dauden konpositoreek sortutako partituren alderdi, estilo eta aberastasun ugariak esploratzen dituzte kontzertuetan, non erreperitorio bikainak eta etorkizuneko maisulanak inolako konplexurik gabe nahasten diren.

Sormenaren zerbitzura egin duten jarduera aintzatetsia izan da han eta hemen. ProQuartet-CEMC fundazioak saritu ditu, bai eta Verbiergo Festibaleko Akademiak ere (ganbera-musika); halaber, Fuga Saria eman zien Belgikako Konpositoreen Batasunak 2012an. 2013. urtean, Aix-en-Provenceko Festibaleko Ganbera-Musikaren Akademiak HSBC saria eman zien, eta, urte hartan bertan, Belgikan, Octave de la Musique saria jaso zuten Musika Garai-kidearen kategorian.

Laukotea mundu guztiko festival eta areto nagusietan egon da, hala nola Parisko Philharmonien, Hari Laukoteen Biurtekoan; Estrasburgoko Musika Jaialdian; Berlioz Jaialdian, La Côte-Saint-André; Nantesko La Folle Journée, Saint-Deniseko Jaialdian, Ircamen ManiFesten, Aix-en-Provenceko Jaialdian, Lilleko Clef de Soleilen, Marseillako GMEM-CNCmen Les Musiquesen, Erromako Controtempo, Verbierko Jaialdian, Bruselako ARS Musica eta Klarafestivalen, Darmstadtoko Musika Berriari buruzko Nazioarteko Udako Ikastaroetan, Berlingo Faithful!-en, Gironako Nits de Classican, Donostiako Musika Hamabostaldian, Suecako Mostra Sonoran, Bartzelonako Palau de la Músican, Parisko Louvre Museoko Auditoriumean, Erromako Villa Médicin, Zipreko Pharos Arts Foundationen, Londresko Wigmore Hall eta Conway Hallen, Vale of Glamorgango Jaialdian, Bruselako BOZARren, Vienako Konzerthausen, Brujasko Concertgebouwen, Dijongo Auditoriumean eta Royaumonteko Abadian, besteak beste.

Cuarteto Tana aitzindaria da teknologia berrien erabileran, eta hainbat ikerkuntza-zentrotako bazkide pribilegiatua da, hala nola Parisko Ircam,

Liejako Centre Henri Pousseur, Marseillako GMEM-CNCM eta Valenciennesko Art Zoyd zentroetakoa. Instrumentu hibridoentzat —*Tanainstruments* deiturikoak— inoiz idatzitako lehen pieza estreinakoz jo zuten. Lan hori Juan Arroyo konpositore perutarrak idatzi zuen, eta Estrasburgon aurkeztu zuten, 2015eko urtarrilean.

Tanaren lehen CDak, *Intrada* (Charles Cros Académieren Coup de Cœur sari-duna), Jaques Lenot konpositore frantziarraren zazpi hari-laukoteen integrala biltzen du, eta lan horrek izan zuen arrakastak bultzada eman zion taldearen ibilbide diskografikoari. Bigarren diskoa, *Shadows*, Paraty zigiluarentzat atera zuten. Lan hori Bedrossianen, Cendoren eta Robinen musika saturatuari eskainita zegoen, eta 2016ko urtarrilean argitaratu zuten. Prentsaren aldetik aintzatespen handia lortu zuten. 2016ko irailaren 11n, laukoteak beste integral bat argitaratu zuen Megadisc Classics zigiluarekin. Lan hori Steve Reichi eskaini zioten, eta *Classica* aldizkariaren Choc batekin saritu zuten 2016ko irailean. 2017an, beste CD bat atera dute Paraty zigiluarekin, *Volts* izenekoa. Disko horrek hari-laukoteentzako eta elektronikako lanak biltzen ditu.

Laukoteak prestigio handiko maisuen irakaspenak izan ditu, hala nola Alfred Brendel eta Gábor Takács-Nagy maisue-na, bai eta David Alberman eta András Kellerrenak ere, Aix-en-Provence eta Verbierko jaialdietako akademietan. ProQuartet prestakuntza-programaren esparruan, Paul Katz, Walter Levin, Eberhard Feltz, Alasdair Tait, Nicholas Kitchen, Louis Fima eta Natalia Prishепенko musikariekin lan egiteko aukera izan zuen.

Colectivo Tanak Frantziako Kultura eta Komunikazio Ministerioaren eta Hauts-de-Franceko Kultura Gaietarako Eskualdeko Zuzendaritzaren babesa du. Halaber, honako erakunde hauen babesa du: Musique Nouvelle en Liberté, Le Fonds pour la Création Musicale, Musique Française d'Aujourd'hui, SPEDIDAM, SACEM eta ADAMI.

Hurrengo kontzertuak

Musika Garaikideko VIII. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2018 | 01 | 23

Ensemble Court-Circuit

Jean Deroyer (zuzendaria)

Philippe Hurel, Bertrand Dubedout, Alberto Posadas eta Javier Quisiant-en lanak

2018 | 02 | 20

Trío Salzedo

Peter Eötvös, Kaija Saariaho, Ivan Fedele, Zuriñe F. Gerenabarrena, Bruno Mantovani eta Joan Magrané-ren lanak

2018 | 03 | 13

Ensemble de Cadaqués

Josep Vicent (zuzendaria)

John Adams, Igor Stravinsky, Joan Albert Amargós eta Mikel Chamizo*-ren lanak

2018 | 04 | 10

Trío Zukan

Félix Ibarondo, María Eugenia Luc, Isabel Urrutia, Francisco Domínguez eta Magnus Lindberg-en lanak

2018 | 05 | 15

Ensemble PHACE

Nacho de Paz (zuzendaria)

Paris qui dort, René Clair-en filma. Yan Maresz-en musika

* BBVA Fundazioaren enkargua

